



HIKU MIKU ZIRIKU

EGILEAREN IZENA ABIZENA ABIZENA
ILUSTRATZAILEAREN IZENA ABIZENA ABIZENA

HIKU MIKU ZIRIKU

2021 Edizioa

Testua: Izena Abizena Abizena

Ilustrazioak: Izena Abizena Abizena

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Antza Komunikazio Grafikoa

ISBN: 000-00-00-0000-0


Lege Gordailua: XX-00000-0000



Lezoko Unibertsitateko Udala

LOGOA ?

LOGOA ?



**ZIRIKU BIHOTZA DUTEN
LEZOARRENTZAT**





HIKU MIKU ZIRIKU

EGILEAREN IZENA ABIZENA ABIZENA
ILUSTRATZAILEAREN IZENA ABIZENA ABIZENA

I. IZURRITEA

**MARTXOAREN 13AZ GEROZTIK INOR EZ DA
KLASERA BUELTATU. AURTENGO IZURRITEAK
ETXEAN SARTU DITU LEZOARRAK ETA LEZOAR
EZ DIRENAK. BEÑAT POZIK DAGO. ETXEKOEKIN
DENBORA GEHIAGO IGAROTZEKO AUKERA DU,
BAINA KALERA ATERA GABE EGOTEA ZAILA
EGITEN ZAIO. ARMAIRUKO ATEEN ARTEAN
HARRAPATUTA GERATU DEN ALKANDORAREN
MUTURRA SENTITZEN DA.**

Udaletxeko erlojuak arratsaldeko hirurak jo
dituenean, badirudi Lezon denbora gelditu egin
dela. Gelako leihoak zabalik ditu eta sardexken hotsa
entzuten du plateren kontra talkan. Gizakiak etxean
daudenez, usoek bere egin dute plaza. Bazkal osteko
alfergura gainetik kendu nahian, ordenagailu aurrean
eseri da. Irakasleek ez dizkiote oraindik gaurko
zereginak bidali, eta Beñat urduritzen hasi da...

azkenean lanak **pilatuko zaizkio!**



Konexio eskasa duela konturatu da. Hura hobetu arte zain egotea beste erremediorik ez zaio geratzen. Besoa luzatu du, eta apaleko liburuen artetik bat hartu du ausaz.

Umetan jakin-minez hainbestetan aztertutako marrazki kuttunak agertu zaizkio begien aurrean. Trapujalaren liburua! Lezoko haurrek txiki-txikitatik ezagutzen eta maitatzen duten izaki miragarria...



Orriak pasatzen hasi da. Beti bezala, hirugarren orrialdeko marrazkiak xundituta utzi du: Marinazkaneren begiak, Jaizkibelgo ilunabar ederren kolorea...

Oraingoan ordea, beste toki batera doa bere arreta: aurpegia musukoz estalia duten izaki misterioitsuengana, hain zuzen ere. Indartsuak dirudite, makilak eskuan, lastozko txapelak buruan, abarkak inetan... begirik gabeko begiradek zirrara eragiten diote oraindik ere.

Halako batean, txilin hots labur batek mezu bat jaso berri duela jakinarazi dio. Irakurri egin du, eta zur eta lur geratu da. Mezuan galdera bakarra ageri da:

"NORTZUK DIRA ZIRIKUAK?"

Segundo batzuk behar izan ditu konturatzeko. Irakaslearen mezua da. Zereginen berri ematen ari zaio, hau da, zirikuei buruzko lantxo bat egiteko eskatu dio.



II. USTEAK KOLOKAN

Pantaila zuriari begiratu dio eta hasperen egin du.
Siesta garaiko isiltasun geldoa zirikatzen hasi da
tekla hotsekin.

**"ZIRIKUAK LEZOKO INAUTERIETAKO PERTSONAIA
EZAGUNAK DIRA. JAIZKIBELÉN BIZI DIRA
MARINAZKANE SORGINAREN ESANAK BETEZ.
ZAZPI ZIRIKU DIRA: TIÑEL, ALLER, IXKU, SATS,
LET, SUMI ETA MUNTAR. MUNTARREK, ZIRIKU
NAGUSIAK, IGITAI BAT DARAMA, BAINA ZIRIKUEN
ARTEAN BEREIZTEA ZAILA DA. EZIN DA JAKIN NOR
DEN NOR..."**

Pentsakor geratu da.

Irakasleak egindako galderaren oihartzuna buruan
danbaka ari zaio: Nortzuk dira zirikuak? Eta segidan,
paretean gogor jotzen duen pilota bezala, bizi-bizi
bueltan datorkio berak idatzitakoaren errepika:

**"EZIN DA JAKIN NOR DEN NOR, ...EZIN DA
JAKIN NOR DEN NOR, ..EZIN DA JAKIN
EZIN..."**



Beñatek badaki zalantzak sortzen zaizkionean
ezin duela horiek argitu arte lasai egon.

Internetera jo du erantzun bila. Kondairak dioena
irakurri du. Ezer berririk ez...: **"ITSAS ALDETIK
EKAITZA ZETORRENEAN, MARINAZKANEK
ZIRIKUAK BIDALTZEN ZITUEN ARTZAINAK
OHARTARAZTERA. GARAIZ PASATAKO
ABISUARI ESKER ARTZAINEK ARDIAK
BABESEAN JAR ZITZAKETEN. JAIZKIBELGO
ARTZAINEK EUREN ESKER ONA ADIERAZTEKO,
URTERO 7 ARDI OPARITZEN ZIZKIETEN
SORGINARI ETA ZIRIKUEI".**



Zalantza. Baina orduan
zergatik pentsatu izan du
Beñatek zirikuak berez direla
gaiztoak eta gezurtiak?

III. INGIUSTIZIA



**MALENI GALDETUKO DIOLA
ERABAKI DU. SUKALDEAN DAGO
ARREBA NAGUSIA. EGURREZKO
GOILARAREKIN LAPIKOARI
TEMATI ERAGITEN DIO.**

- Zer zabilta? -galdetu dio Beñatek.
- Aitak dilistei eragiteko esan dit bera komuneko kanila konpontzen ari den bitartean. Eta niri ahaztu egin zait! Erre egin zaizkit! Ederra daukat! Eta zu zer? Laguntzera zatoz? Zeren bestela badakizu, hobe etorritako bidetik ospa egitea...
- Irakasleak zirikuei buruzko lan bat egiteko eskatu digu... kontua da beti pentsatu izan dudala zirikuak asmo txarreko izakiak direla... baina gaur artzainei lagundu egiten zietela jakin dut.
- Bai, hala da. Zer da ez duzuna ulertzen?
- Ez dut ulertzen laguntzea gustuko duen norbaitek nola buka dezakeen lapurtzen, gezurrak esaten, Trapujaleri burua mozten...
- Ai nebatxo! Nerabeoi etengabe gertatzen zaigu hori!
- Zer esan nahi duzu?
- Jendeak guri buruz zein iritzia duela uste duzu ba? Guztiaz paso egiten dugula, festa besterik ez dugula buruan. Izurritearekin argi geratu da gizarteak errudunak bilatzen dituela beti, eta oraingoan, guri egokitu zaigu denok etxean konfinatuta egotearen errua izatea... izurritea gazteok axolagabekeriz jokatu dugulako zabaldu omen da! Jakingo balute zein injustua den guztia!
- Malen, zirikuez ari natzaizu. Zein zerikusi du injustiziak hemen?
- Ez al duzu ikusten? Zirikuek lagundu egiten zuten! Artzainek emandako ardiak ziren egindako lanaren ordaina. Horri esker bizi ziren zirikuak. Baina eguraldi ona egin zuen batean, ardirik ez ematea erabaki zuten. Ez zioten zirikuen lanari baliorik eman, eta ez ordaintzea erabaki zuten. Artzainek ez zuten kontuan izan zirikuak jatekorik gabe uzten zituztela.

- Egia esan ez nuen sekula horrela pentsatu...
- Ba horrelaxe izan zela uste dut nik. Horregatik erabaki zutela zirikuek ardiak lapurtu eta jatea. Ez zitzaien beste erremediorik geratu!
- Baina gero Trapujale izan zela esan zuten denen aurrean.
- Bai hori egin zuten. Batzuetan horrelako ateraldiak izaten ditugu zer esan ez dakigunean. Trapujale hain maitatua izanik, lezoarrek ez zutela gogor zigortuko pentsatuko zuten agian... eta gero ezin atzera egin.




Arrebak esandakoaz gogoeta egin du. Arrazoi du Malenek. Gezurrek hipermerkatuetako eskailera mekanikoen antza dute: behin lehen gezurra esanda, behin lehen metalezko koska zapalduta, aisa zaramatzate gailurrera. Alferrikakoa da kontrako norantzan pausoak ematen hastea... **GEZURREN TONTORRERA HELDU ARTE EZIN BAITUZU KONTROLA BERRESKURATU!**




IV. LAGUNAK

ARRATSALDEKO 19:30AK. ITXIALDIA HASIZ GEROZTIK, LAGUNAK IKUSTEKO HITZORDUARI EZ DIO HUTSIK EGIN BEÑATEK. BALKOIRA ATERA, ETA HAIZE FRESKOA HARTZEAREKIN BATERA, KOADRILAKOEN AURPEGIAK IKUSI ETA HAIEKIN HITZ EGITEA DIRA EGUNEKO JOKALDIRIK ONENAK.



Txorixo otartekoa eta baso
bete ur hartu ditu ordenagailu
aurrean eroso jartzeko.
Ziber-poteorako prest dago.
Berehala agertu zaizkio pantaila
barruan lagunak aurpegiak:
Aiur, Oier, Xiker, Urko, Eder,
Hodei, Garazi, Enara, Inge, Mara,
Uxuri, Lide, Haizea, Amaiur,
Leire, Aimar, Araia, Iraia,
Jimena eta Nagore.



- Kaixo! Norbaitek ba al daki Aiertzek eta Lukenek konektatzeko asmorik ba ote duten?
- Ez dakit! Ordua pasako zitzaien agian...
- Tira, zer moduz pasa duzue gaurko eguna?
- Nahiko ongi. Amak bizikleta estatikoa jaitsi du ganbaratik eta egongela erdi-erdian paratu du. Denok ibili behar omen dugu! Egunero, gutxienez 10 minutuz! Gaur 12 kilometro egin ditut! -esan du Amaiurrek.

- Bai, ni ere pasiloan atzera eta aurrera ibili naiz korrika...-erantsi du Xikerrek barrez.
- Hasi al zarete zirikuei buruzko lana egiten? - galdetu die Beñatek.
- Uf! Alfertuta nabil...ni oraindik ez naiz hasi -esan du Marak.
- Bai, nik erraz egin dut. Ardiak lapurtu zituztela kontatu dut, gero herrira jaitsi eta gezurretan ibili zirela...
- Bai, ni ere horrela hasi naiz, baina gero artzainei lagundu egiten zietela jakin dut. Basajaun edo jentilen antzekoak dira, mendi eta animalien zaindari... bihotz oneko izaki mitologikoak dira!
- Orduan zergatik irudikatzen ditugu gaizto moduan? -galdetu du Ingek.
- Bai, egia da. Ez dakit zergatik dugun zirikuei buruzko irudi hori...-esan dute aho batez besteek ere.
- Telebistan esan dutenez, bihartik aurrera ordu batzuz etxetik ateratzeko aukera izango dugu. Jaizkibel aldera joan gaitezke, Munttarrera igo, zirikuei buruz pixka bat ikertu...
- Ongi da! Hori egingo dugu! Bihar arte!
- Aio!

**BIHARKO EGUNA
DESBERDINA IZANGO
DA. BEHINGOZ ETXETIK
ATERA ETA LAGUNEKIN
EGOTeko AUKERA IZANGO
DU BEÑATEK. GAINERA,
ZIRIKUEN IKERKETAK
NORA ERAMANGO DITUEN
JAKITEKO IRRIKAZ DAGO.**

Eguna bukatzeko, liburutegiko arduradunari e-mail bat idatzi dio zirikuei buruz galdezka. Inor Lezoko inauterietan aditua bada, hori gure liburuzaina da. Listo. Bidalia. Ea zer dioen.

**OHEAN SARTU DA, BAINA BADAHI KOSTA EGINGO
ZAIOLA LOAK HARTZEA. BURUARI JIRA ETA
BIRA ARITUKO DA ZORABIATU ETA AMETSEN
OZEANOAN MURGILDU ARTE. JAIZKIBELGO
ARROKETAN ALFERKERIAN DAUDEN
KARRAMARROEN ZURRUNKAK HEDATU DIRA
ANDREONEN HASI ETA KALE NAGUSIAN BARN...**





V. ASKATASUN ORDUAK

**DESEROSO DAGO
MUSUKOAREKIN. ARNESA BEHAR
BEZALA HARTZEA KOSTA EGITEN ZAIO.
BITXIA DA LAGUNEN AURPEGI ERDIA IKUSI
ETA BESTE ERDIA IMAJINATU BEHARRA.**

**HERRIKO KALEETAN ZEHAR MUSUKOA SOINEAN DUTELA IBILI DIREN ARREN,
JAIZKIBELÉN GORA HASI BEZAIN PRONTO KENDU EGIN DITUZTE. BIRIKAK AIRE
FRESKOZ BETE ZAIZKIE. SUDURZULOAK AGERIAN IZATEA GAUZA EDERRA DA GERO!**

- Ai! Berehala nekatzen naizela sumatzen dut, hainbeste denbora pasa dugu etxean sartuta...-esan du Oierrek arnasestuka.
- Bai, maldan gora hasi besterik ez gara egin eta pott eginda nago! -dio Aiurrek izerdi tantak kamisetaren mahukaz xukatuz.
- Zirikuek korrikaldi ederrak egin beharko zituzten ekaitza zenean artzainei abisua garaiz pasatzeko... ez zen erraza izango! -hausnartu du Uxurik.


Halako batean, zuhaitz artetik txistu luze bat entzun da. Gero, hiru txistu labur igotzerakoan atzean utzi dituzten arroka hareatsuen artetik.

- Hori txori bat al zen? -galdetu du urduri Lukenek.

- Bai, miru hotsa iruditu zait niri. - esan du Beñatek.

Gorputza erne sumatu du. Norbait zelatan dutela iruditu zaio.

SUN
AK






Iritsi dira Munttarreko tontorrera. Indarrak berreskuratzeko borobilean eseri eta hamaiketako jaten hasi dira. Aske zireneko garaia etorri zaizkie gogora: amaigabeko udak, errekako ur hotzetan egindako dzangak, mami guri eta azal kurruskarizko ogitartekoak ... ummm.... Paradisua!

- Zer iruditzen zaizue bihar Ixkulin gainera igotzen bagara? Ona iragarrita dago...-proposatu du Leirek.

- Ongi iruditzen zait. Nik etxetik ateratzearren edozer gauza egingo nuke...-esan du Aiertzek otartekoari gogotsu kosk egin aurretik.
- Enara, makila eta guzti etorri al zara mendira? Goranzkoan ez dizut makilarik ikusi...-galdetu dio Urkok.
- Nola ikusiko zenidan ba, ez neukan eta! -erantzun dio harrituta Enarak.

Beñatek salto batean hartu du Enararen ondoan dagoen gaztainondo-egurrezko makila. Ongi aztertu ondoren lagunei erakutsi die:





- Zerbait dauka idatzita hor! -oihu egin du Garazik.
- Hiku Miku Ziriku...-irakurri du Beñatek.
- Hiku Miku Ziriku? -esan dute denek batera harrituta.


Halako batean, lehen entzundako miruen txistua entzun da berriro ere.

- Norbait dabil hor...
- Aizue, ordu erdi barru etxean egon behar dugula gogoratu!

Gazteek berriketan jaitsi dituzte txilarrez eta otaloz apaindutako maldak. Herria begibistan izan dutenean, elkarri begiratu eta denek batera oihukatu dute: HIKU MIKU ZIRIKU!

Miruek berriro erantzun diete. Gazteak irribarrez joan dira etxera.

HIKU MIKUU ZIRIKU



VI. ASPALDIKO KONTUAK

GOSARITAN BETI AGERTZEN DA MAHAI GAINEAN AFARIKO AZTARNAREN BAT: TOMATE ORBANA, OGI APURRAK. HORIEI BEGIRA DAGO BEÑAT, PENTSAMENDUETAN MURGILDUTA. ZIRIKUEN IZENAK JAIZKIBEL MENDIKO LEKU EZBERDINAK DIRA, MENDI GAINAK BATZUK, BASERRI ZAHARREN IZENAK EDO KOSTALDEKO TXOKOAK BESTEAK. PARAJE HORIEK GUZTIAK BISITATUZ GERO ZERBAIT ARGITUKO DUTELA SUMATZEN DU. ATZOKO MIRUEK ETA GAZTAINONDO MAKILAK BIDE ZUZENETIK DOAZELA ESATEN DIOTE.

Mendian estaldurarik izango ez duenez,
posta azken aldiz begiratu du.
Mezu berri bat!

Bihotza eztarrira etorri zaio
mezuaren gaia irakurri duenean:
HIKU MIKU ZIRIKU.

Ireki gabe dagoen mezua dirdirka
dago, iruzurgilearen urrezko haginaren
distira du... Ezin izan dio eutsi mezua
zabaltzeko gogoari. Eta irrikaz irakurri
du. Lagunei erakusteko desiratzen dagu
baina lxxkulin gainera iritsi arte ez die
erakutsiko liburutegiko arduradunak
bidalitakoa.



"...arzainen bordec esin isan diote eutzi. Aizeac teilatu gabe utzi du Satsaco borda. Arranzaleen echolac ere chimistac jo eta gustis erre dira. Es da eser geratzen sutic. Ardiec iges egin dute. Galera eta calteac andiak isan dira. Lan asco egin bearco da gausac len besela jartzeco. Arzainac quescatuta asaldur dira. Costaldeco baserriac ere isan dira caltetuac. Sumillondo, Lete eta Sachaco maisterrec siricuen lagunza jaso dute. Sus...ic esan du siricuei esquer...ganadua...Catedrala.... eta gisonac....salvatu ...biotzonecoaMunttar...."

Sitsek urteak izan dituzte liburutegiko kronika zaharren artean paseatzeko. Gozoen irudituzaien hitzak jan egin dituzte. Hori dela eta, Beñatek eta bere lagunak ezin dute aspaldiko gertaerari buruz paperean idatzitako guztia irakurri. Xaguek orriaren izkinak karraskatu izanak ez du laguntzen.

Liburutegiko arduradunak esan duenez, papera eskuarte hartzean desegin egiten zen. Horregatik erabaki du agiri zaharraren argazkia bidaltzea eta jatorrizko idatzia Andreoneko apaletan salbu mantentzea. Izan ere, dokumentua hauskorregia eta baliotsuegia da nolanahi erabiltzeko.

Mugikorraren pantailari zimiko egin dio argazkia handitu eta hobeto ikusi ahal izateko.



- Hitzak falta dira! Argi dago hondamendiren bat gertatu zela, baina zer? - galdetu du Xikerrek.
- Izen batzuk aipatzen ditu... Sumillondo, Lete, Sahatsa, Katedrala... horri heldu beharko diogu- pentsatu du ozenki Beñatek.
- Konturatu zarete? Sumi, Sats eta Let zirikuen izenak dira. Bat datoz baserrien izenekin! Baina Katedrala? - argi ibili da Garazi oraingoan.
- Lezon basilika bai, baina katedralik ez dugu...-erantsi du Marak.
- Jaizkibel da gakoa! Mendiak ditu behar ditugun erantzunak! Eta badakizue nork ezagutzen dituen inguru hauetako sekretu guztiak?
- Bikiek! -esan dute denek elkarri bostekoa luzatuz- Hiku Miku Ziriku!

**HIRU HITZEN MAGIA MARTXAN
JARRI DA: MIRUEN TXISTUA
ALAI HELDU ZAIE IRATZEEN
ARTETIK. IXKULINGO MUINOTIK
KONTENPLATZEN DEN PAISAIK
TXUNDITUTA UTZI DITU GAZTEAK.**



Etxera bueltatu baino lehen, bikiei telefonoz hots egin diete. Hurrengo egunean Saldise Plazan elkartzekotan geratu dira. Anaiek motxilak eta hamaiketakoa eramateko esan diete. Horrez gain, gaua etxetik kanpo igaro ahal izateko aitzakia onen bat asmatzeko aholkatu diete. Etxeratze-agindua ezarri zutenetik zeinen zaila den gurasoei gezurtxoren bat kontatu eta ziria sartzea!

Jaizkibelera joango dira berriro ere. Abentura usainak denen kirioak dantzan jarri ditu, baina konfinamenduko lozorrotik ateratzeko aukera ikusten hasi dira. Fitxaketa ona izan da bikiena, badirudi bi hauek badakitela zertan ari diren...



PARADISUA

VII. PARADISUA

NEGU GORRIAN KOBAZULOAN HIBERNATZEN ARI DEN
HARTZA ESNAZKEKO ADINA ENERGIA DUTE BIKIEK.
LEHENBAILEHEN ATERA BEHAR DUTE HERRITIK.
GAZTE TALDE BAT MOTXILA ETA GUZTI IKUSIZ GERO,
BIZILAGUN KONTAKATILUEN SUSMOAK
PIZTUKO LIRATEKE.



Jaizkibelgo bidexketan barna erraz ibili dira. Ibilbidea zailtzen hasi da, ordea, iratzeak bururaino iristen hasi zaizkienean. Ordu-erdiko tormentua izan dute. Gehiegi hazitako garoek hazkurea eta kilimak egin dizkiete izterretan zein sudurrean:

- Iritsi gara Infernura! -esan du irribartsu bikietako batek besoak zabal-zabak egin eta inguruak erakutsiz.

Beste bikia lanperna erraldoi itxurako arroka gorri baten ondoan dago. Ikusgarria da haizeak, urak eta urteek hareharria nola higatu eta diseinatu duten. Zeruan saiak jira eta bira dabilta, naturaren edertasun ezkutuen zaindari.

Bikiek hartu dute hitza:

- Orain bizkor ibili behar dugu. Antxeten hondartzara itsasbehera denean soilik sar gaitezke.

Gastarrotz izeneko errekaetoari jarraitu diote. Hareharrizko forma bitxi eta koloreanitzak zeharkatu dituzte, eta bapatean... gazteek sekula ikusi gabe zutena!




**TXIKI-TXIKI SENTITU DIRA PAREAN
TOPATU DUTENAREN HANDITASUNA
IKUSTEAN! ITZELA DA, BITXIA, HARRI
GORRI, HORI GORDINA. AMALURRAK
ERAIKITAKO ALIMAKEKO TENPLUA...
AHO ZABALIK DAUDE DENAK.
HARRIZKO ISILTASUNA EGIN DA.**

Gazteen buruek isiltasuna behar dute
hainbesteko bikaintasuna asimilatzeko.
Ez dute bikien azalpenik behar.
Ulertu dute.

- Hau da katedrala.

GAUBELA

VIII. GAUBELA



**GAUA KOBAZULOAN PASATZEAK
SENTIMENDU KONTRAJARRIAK
PIZTEN DIZKIO BEÑATI. ALDE BATETIK,
ZIRRARA SENTITZEN DU, BAINA BESTETIK,
IZU PUNTUA ESNATZEN ZAIO SABELEAN.
ILUNABARRA EDERRA IZAN DA.
JAIZKIBEL EN ILUNABARRAK BETI
DIRA EDERRAK. EGUZKIAK EZTIZKO
BERNIZAZ LAZTANTZEN DITU
PARETETAKO FORMA BOROBILDUAK.
ARGI ETA ITZALEN DANTZA GISA
HASTEN DENA, BERO ETA HOTZEN
NORGEHIAGOKA BILAKATZEN DA.
AZKENEAN, JAIZKIBELGO IZAKI
GUZTIEK ONARTZEN DUTE GAUAREN
GARAIPENA.**

Lo-zakuak zabaltzeko lekua soberan dute kobazuloan. Bakoitzak bere txokoa hartu du eta linternak piztu dituzte. Katedralak umetoki leun baten formak ditu. Ongi egoten da.

- Guztiak etxean dauden bitartean, begira guk non pasako dugun gaua! - esan du Uxurik.
- Norbaitek haitzulo honetan gaua pasatzen duen lehen aldia izango da seguruenik... -esan du Haizeak buruari ezker-eskuin eraginez.



- Ez pentsa! Artzainek eta ardiek pasa zuten, bai! -erantzun dute aldi berean bikiak- Gure etxean beti entzun izan dugu duela urte mordoa, inoiz ikusi den ekaitzik bortitzena piztu zela inguru hauetan. Tximistak non-nahi, haizea firin-faran zuhaitzak lurrera boteaz... Jaizkibelgo artzainek gorriak ikusi zituzten euren artaldeak bordetan salbu jartzeko.

Bikiek txandaka hitz egiten dute. Bata despistatzean besteak hitza kentzen dio:

- Oso bortitza izan zen denboralea. Teilatu batzuk haizeak eraman zituen airean, eta beste batzuk, tximistak jota ikaztuta geratu ziren.

- Ardiak urduritu eta Jaizkibelen barna sakabanatu ziren. Gure birraitona artzaina zen, eta amak ganbaratik jota zegoela esaten zuen arren, oso zentzuduna zirudien enbataren pasarteak kontatzen zuen bakoitzean.
- Eta zer gertatu zen ardiekin? Ardi asko galdu zituen zuen birraitonak?
- Gezurra badirudi ere, ez! Ez zuen ardi bat bera ere galdu!



- Baina hori nola da posible? Ez al ziren ardi guztiak ihesi joan?
- Bai, baina birraitona Migeltxoren arabera, zirrikuek egoeraren larritasuna ikusiz, eta Munttarren aginduz, inguruko abere guztiak Katedralera ekarri zituzten. Artzainak ere aziendekin batera Katedraleko kobazulo barruan babesean jarri omen zituzten.

- Ekaitza inoiz gogoratzen den luzeena izan ei zen. Zirikuek egunak behar izan zituzten artalde guztiak katedralera gerturatzeko, baina azkenean lortu zuten. Eguraldi txarrak iraun zuen bitartean, arrokaen sabelean bizirik mantendu ziren gizaki zein animaliak. Hilabete beltz luzearen ondoren, eguzkia atera zen, eta kobazulo barruko biztanleak kanpora atera ziren.



- Guztia ongi atera zela ospatzeko, baina batez ere zirikuei eskerrak emateko, Munttarreko tontorraren zabaldian festa polita antolatu zuten. Ez omen zen ezer falta: musika, dantza, jana eta edana! Denetarik zegoen! Festak gaueko ordu txikiak arte iraun omen zuen.
- Ze, gustatu al zaizue? Benetakoa izan ez arren, istorioa polita da, ezta?



Bikien hitz-jarioak mutu utzi ditu besteak. Elkarri begiratu diote zer esan ez dakitela.

- Zergatik diozue ez dela erreal?
- Ba gure birraitonak ganbara nahastua zeukalako!
Hori kontatu eta beti bukatzen zuen zentzurik gabeko
hitzak esaten: Hiku Miku Ziriku...




Ez da posible... Beñatek lagunei
begiratu die baimena eskatuz bezala.
Denek buruarekin baietz egin diote. Orduan,
patrikatik telefonoa atera du eta bikiei liburutegiko
arduradunak bidalitako argazkia erakutsi die.

Isilean irakurri dute anaiek agiri zaharra. Burua altxa dutenean
ezin izan dute euren harridura disimulatu.


- Idatzi honen arabera, zuen birraitonak lepo gainean zuen burua. Garai hartako kronika bat da eta Lezoko liburutegian dago jatorrizko papera. Egoera kaxkarrean, baina zuek kontatutakoarekin bat dator! -azaldu die Beñatek.
- Denek batera esango dugu?
- HIKU MIKU ZIRIKU!

Eta miruak, hutsik egin gabe, txisturik ederrenarekin erantzun die. Lasai egin dute lo gazteek Katedralaren magalean.

HIKU MIKU ZIRIKU



IX. LEZOARRON SEKRETUA



**ILUNABARRAK EDERRAK
DIRA JAIZKIBELN,
BAINA EGUNSENTIAK ERE
EZ DIRA MAKALAK!**

**GOIZ ALTXA DIRA LAGUNAK.
NAGIAK ATERA, ETA BEREHALA
JARRI DIRA MARTXAN.
LEIZEZULOAREN BAZTER GUZTIAK
ARAKATU DITUZTE. ENARAK FOSIL
MORDOXKA AURKITU DU, ETA
ZABARRE PIRATAREN ALTXOR
PREZIATUA TRATATUKO LUKEEN
MIMO BERDINAZ GORDE DITU
HARRIAK MOTXILAN.**

Herrirako bidea kantari egin dute.
Egindako aurkikuntzak energia eman
die. Zitzu bizian dabilzkie oinak.
Lore-begiak jaiotzen hasi dira adar
biluzietan. Natura pozik dagoela dirudi.

Gurasoak elkarren artean hizketan
hasi baino lehen bueltatu behar dute
Lezora. Euren amarruak ez du gehiegi
iraungo amatxo untxarien alarmak
aktibatzean. Herria zapaldu aurretik
azken geldialdia Plattaiturri izan da.
Hor jarri dute guztiek musukoa. Ahoak
estali dituzte, zirikuek bezala, mendian
deskubritutakoa isilean mantentzeko
ahobatezko erabakia hartu izan
balute bezala.



Etxera sartzean, ama eta Malen topatu ditu pasilloan. Amak begietara begiratu dio.

- Zu desberdin zaude...
- Bai, hori gertatzen zaigu zirikuoi
Jaizkibeldik gatozenean! -erantzun dio
Beñatek.
- Mutil hau burutik jota dago! -bota du
arrebak.



**BEÑATEK BADAŖI BIKIEN
BIRRAITONA BEZAIN ZENTZUDUNA
DELA. OSO ARGİ IKUSTEN DITU
GAUZAK ORAIN. AMETSETAN AZALDU
ZAIKIO ZIRIKUAK DORREOIRA
İGOTA, HARRİ İKARAGARRIAK
ALTXATZEN, KARDABERA ETA
KAMAMILA BILTZEN, EHİZAN,
ARRANTZAN, BELAZEETAN
ZİLİPURDIKA... BERA ETA LAGUNAK
İBİLİ DİREN BEZALA.**



X. JAIZKIBEL

Irakasleak zuzendu ditu lanak. Bikain jarri dio! 10 bat atera du!...
eta notaren ondoan hiru hitz...hiru!

"Irakasleak ere badaki, ikusten ez ditugun arren, mendian
gaudenean zirikuek zaindu egiten gaituztela" pentsatu du
Beñatek.

Arratsaldean liburutegira joan da lizuburuzainari eskerrak
ematera, baina itxita aurkitu du. Andreoneko atean kartel bat
ikusi du:

JAIZKIBEL MENDIA ERRESPETA DEZAGUN!
GARBI ETA TXUKUN MANTENDU GURE HERRIKO ALTXORRA

"Afixa jarri duenak ere begietara begiratu die zirikuei" pentsatu du
bere golkorako.

Hiku, Miku Ziriku
Jaizkibelen korrika,
artzainei deika.

Nola egingo di(n)at, dizut, lagun,
zuka ala hika?
Hiku, Miku Ziriku

LIBURUTEGIA

ITXITA

JAIZKIBEL MENDIA
ERRESPETA DEZAGUN
GARBI ETA TXUKUN
MANTENDU
GURE HERRIKO
ALTXORRA







MIKU ZIRIKU

HIKU MIKU ZIRIKU

- I. IZURRITEA
- II. USTEAK KOLOKAN
- III. INJUSTIZIA
- IV. LAGUNAK
- V. ASKATASUN ORDUAK
- VI. ASPALDIKO KONTUAK
- VII. PARADISUA
- VIII. GAUBELA
- IX. LEZOARRON SEKRETUA
- X. JAIZKIBEL

